

**2005EKO URRIAREN SEKO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 5 DE OCTUBRE DE 2005**

**Akta zenbakia:** 11/2005  
**Bilera data:** 2005-10-05  
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 16:30- 16:50  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga

**Zinegotziak:**  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Angeles Iriondo Mugica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo Gonzalez Moran  
 Consuelo Frutos González  
 Jose Guirado Novo  
 Jose Maria Mugica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M. Asuncion Guerra Alonso

**Ezin etorria adierazi dute:**  
 M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

**Bitarteko idazkaria:**  
 Beatriz Garate Cortabarría

**Aztergaiak:**

- 1.- Aurreko akta onartzea, bidezkoa bada.
- 2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.
- 3.- Galde-eskeak.

**1.- Aurreko akta onartzea, bidezkoa bada.**

Alkateak esan du 2005eko uztailaren 27ko akta onartu behar dutela; era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

**Acta nº:** 11/2005  
**Fecha:** 05-10-2005  
**Tipo de reunión:** Pleno ordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 16:30- 16:50  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga

**Concejales:**  
 Maria Isabel Vaquero Montero  
 José Luis Aramendi Goikoetxea  
 Jose Maria Aldanondo Ugalde  
 Maria Ángeles Iriondo Múgica  
 Gaspar Esnaola Agesta  
 Hermenegildo González Moran  
 Consuelo Frutos González  
 José Guirado Novo  
 Jose Maria Mugica Heras  
 Juan Maria Tomasena Alzuri  
 M. Asuncion Guerra Alonso

**Ausentes, que se han excusado:**  
 M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz


**Secretaria interina:**  
 Beatriz Garate Cortabarría

**Orden del día:**

- 1.- Aprobación, si procede, del acta anterior.
- 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.
- 3.- Ruegos y preguntas.

**1.- Aprobación, si procede, del acta anterior.**

El alcalde ha señalado que hay que aprobar el acta de 27 de julio de 2005; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a



## 2005EKO URRIAREN 5EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 5 DE OCTUBRE DE 2005

este respecto.

Ez da eztabaidarik izan, eta Udalbatzak aho batez onartu du 2005eko uztailaren 27an egindako udalbatzarren akta.

No se ha producido ninguna discusión, y el Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el 27 de julio de 2005.

### 2.- Alkatearen eta Herriko Gobernu Batzarraren ebazpenen berri ematea.

2005eko uztailaren 22tik 2005eko irailaren 27ra bitarteko Alkatezako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Era berean, 2005eko uztailaren 7an, uztailaren 21ean, uztailaren 27an eta abuztuaren 11n Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du 2005eko uztailaren 27ko Herriko Gobernu Batzarraren aktan akats bat dagoela; izan ere, kale-garbitzeko kontratua FFCC enpresari esleitu zaiola agertzen da, eta izena FCC du. Idazkariak esan du begiratuko duela, eta izena gaizki badago zuzenduko duela.

### 3.- Galde-eskeak.

Alkateak hitza eman die gainontzeko zinegotziei nahi dutena galde dezaten.

Orduan, 16:40an, M. Asuncion Guerra Alonso zinegotzia sartu da batzar aretoan.

PSE-EEko zinegotzi Hermengildo

### 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía v de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 22 de julio del 2005 hasta el 27 de septiembre de 2005, enviados junto con la convocatoria.

Asimismo, se ha dado cuenta de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 7 de julio, el 21 de julio, el 27 de julio y el 11 de agosto del 2005. Por tanto, han quedado informados.

Ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri para comentar que en el acta de 27 de julio de 2005 de la Junta de Gobierno Local aparece la adjudicación del contrato de limpieza viaria a la empresa FFCC, cuando el nombre correcto es FCC. La secretaria expresa que lo revisará y si está incorrecto el nombre de la empresa procederá a subsanar el error.

### 3.- Ruegos y preguntas.

El alcalde ha cedido la palabra a los demás concejales para que formulen las preguntas que deseen.

En este momento, siendo las 16:40 entra en el Salón de Plenos la concejal del PP, M<sup>a</sup> Asunción Guerra Alonso.

Ha solicitado la palabra el concejal del



*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Squashoa*

## 2005EKO URRIAREN 5EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 5 DE OCTUBRE DE 2005

Gonzalez Moranek eskatu du hitza, udalbatzarrean hartutako bi akordioaren berri galdetzeko: batetik, pediatria eta ginekologia zerbitzuari buruz jakin nahi izan du, eta bestetik, Bigarren Hezkuntzako institutuari buruz. Lehenengoari buruz esan du batzorde bat egingo zutela esan zutela, egindako kudeaketan berri emateko.

M. Isabel Vaquero Monterok erantzun dio azkeneko udalbatzarrean eman zituela pediatria eta ginekologia zerbitzuen inguruko azalpenak, eta egindako eta gertatutako guztia azaldu zutela udalbatzar horretan; beraz, ez dutela informazio batzordera deitu; dena den, esan du batzorde hori egitea garrantzitsua iruditzen baldin bazaie ez dagoela inolako arazorik. Hezkuntzari dagokionez, esan du udalbatzarraren akordioaren ziurtagiria bidali zutela. Horrez gain, uztailaren amaieran Hezkuntzako Ordezkaritzara deitu zuen, eta zita eskatu zuen Donostiako Hezkuntzako ordezkari Juanjo Arrizabalagarekin; haren idazkariarekin hitz egin zuen, eta hark jakinaraziko ziola esan zion; baina abuztuan Lakuako beste lanpostu baterako izendatu zuten Juanjo Arrizabalaga, eta oraindik ez dute kargu hori bete; dena den, hamabostean behin Juanjo Arrizabalaga joaten da Donostiara eta harekin hitz egiteko zain dago.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta esan du uztailaren 27ko udalbatzarrean egin zuela galdera hori zinegotzi sozialistak eta M. Isabel Vaquerok erantzun ziola esanez Osakidetzaekin bilera egin zutela eta han esan zutela herri guztietan itxarote lista oso luzea dela eta Urnietari ez dagokiola zerbitzu zabalagoa. Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta esan du horri buruzko informazio gehiago ez baldin badago ez dela beharrezkoa informazio batzordea egitea. Gero, PSE-EEko zinegotziak galdetu du nola dagoen Urnietatelen kontua; izan ere, Herriko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 16an

PSE-EE, Hermenegildo González Morán para preguntar por dos acuerdos tomados en Pleno: el primero en relación al tema de pediatría y ginecología y el segundo relativo al Instituto de Secundaria. Ha dicho que respecto al primer tema se dijo que se celebraría una Comisión para informar de las gestiones llevadas a cabo.

Le ha respondido M<sup>a</sup> Isabel Vaquero Montero señalando que en el último Pleno dio las explicaciones necesarias respecto a los servicios de pediatría y ginecología, y que se informó de todas las gestiones llevadas a cabo en ese Pleno, razón por la que no han convocado una comisión; no obstante, ha señalado que si les parece importante celebrar esa comisión no hay ningún inconveniente para ello. Con respecto al tema de Educación Secundaria, ha señalado que ya se envió el certificado del acuerdo adoptado por el Pleno y que a finales de julio ella misma llamó a la Delegación de Educación y que solicitó cita con el delegado de Educación en San Sebastián Juanjo Arrizabalaga; entonces habló con la secretaria, quien le manifestó que ya le avisaría al delegado de su solicitud; sin embargo, en agosto designaron a Juanjo Arrizabalaga para otra plaza en Lakua, y todavía no han cubierto el cargo que ocupaba; con todo, Juanjo Arrizabalaga viene a San Sebastián cada quince días, y está a la espera de hablar con él.

Después toma la palabra el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena para expresar que en el Pleno del 27 de julio el concejal socialista formuló esa pregunta y fue contestada por M<sup>a</sup> Isabel Vaquero, diciendo que en la reunión que tuvieron en Osakidetza les comentaron que las listas de espera eran muy grandes en todos los municipios y que a Urnieta no le corresponde más servicio. Hermenegildo González toma la palabra para decir que si no hay más información a este respecto no es necesario convocar la Comisión Informativa. Después el concejal del PSE-EE pregunta, ya que el 16 de diciembre de 2004 por acuerdo de la Junta de



## 2005EKO URRIAREN 5EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 5 DE OCTUBRE DE 2005

erabaki zuenez, ZB Auditores enpresari eskatu zitzaion Urnietatel desagiteko modua aztertzeko.

Alkateak erantzun dio bere garaian azaldu zuen bezala, gai hori etenda geratu zela, izandako eskaeraren ondorioz; hortaz, gai hori argitu arte etenda geldituko dela.

Gero, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik Arau Subsidiarioei buruz galdetu du; hain zuzen, zenbat iradokizun egin diren galdetu du, eta prozedura orain zertan den. Alkateak erantzun dio esanez egindako iradokizunen erantzuna prestatzen ari direla hala aldaketa zehatzean nola arauen berrikuspenean, eta prest dagoenean Hirigintzako Informazio Batzordea antolatuko dutela horietaz hitz egiteko; berriskupenaren inguruan 38 iradokizun egin dira, eta Urkain-Berriko aldaketaren inguruan 4.

Azkenik, alkateak 2005eko abuztuaren 8an emandako alkate dekretu baten berri eman du: 2006ko irailaren hogeita bederatzia proposatu da Urnietako jaiegun.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko seiak laurden gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Gobierno Local se encargó a ZB Auditores un estudio sobre la disolución de Urnietatel, cómo está ese tema.

El alcalde le ha respondido diciendo que, tal y como se explicó en su día, ese tema quedó suspendido, a causa de la demanda habida; por tanto, ha señalado que hasta que se aclare el tema, quedará en suspenso.

Después el concejal de IU, Juan M<sup>a</sup> Tomasena Alzuri pregunta, en relación a la redacción de las Normas Subsidiarias, cuántas sugerencias se han presentado y en qué trámite está el procedimiento. El alcalde le responde que tanto en la modificación puntual como en la revisión de las normas se está preparando la respuesta a las sugerencias presentadas y que cuando esté lista, se convocará una Comisión Informativa de Urbanismo para tratar las mismas; se han presentado 38 sugerencias a la revisión y 4 a la modificación de Urkain-Berri.

Finalmente, el Alcalde ha dado cuenta de un Decreto de Alcaldía emitido el 8 de agosto de 2005, proponiendo el veintinueve de septiembre de 2006 como día festivo del municipio de Urnieta.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las seis menos cuarto del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría  
Bitarteko idazkaria,



Stua.: Florentino Ugalde Atxaga  
Alkate-lehendakaria,

